

Euskera y MONDRAGON

UNA COMPLICIDAD HACIA LA NORMALIZACIÓN

GARA

GUZTIOK

ELKARREKIN

NOSKI

AURRERA



Las cooperativas se basan en valores, y el euskera es un valor para MONDRAGON. Las cooperativas de MONDRAGON asumieron el euskera como valor propio desde su origen, comprometiéndose a fomentar la lengua y la cultura autóctonas como valores. El euskera forma parte de nuestra identidad, un elemento cultural imprescindible, con un valor cohesionador y que conecta con la sociedad.

TU LANKIDE

En la época en la que se estaba *haciendo el euskera*, MONDRAGON asumió el reto y lo convirtió en proyecto: la apuesta era incorporar el euskera a la cultura de las cooperativas.

Y como la cultura desayuna estrategia cada mañana, MONDRAGON dió un enfoque estratégico al euskera: introdujo el euskera en sus políticas y creó políticas para fomentar el euskera en las cooperativas. Como elemento transversal, se ha ido dando funciones al euskera intentando que sea una lengua de trabajo y mejorando continuamente los servicios que se prestan en esa lengua. Todo bajo una serie de estrategias bien planificadas. Estratégicamente, hacer un uso prioritario del euskera ha sido el eje central de los planes de euskera de MONDRAGON. Es el uso lo que aporta valor a la lengua. Cuanto más se usa, más valor adquiere el euskera en nuestras cooperativas.

Esta apuesta de MONDRAGON ha aportado mucho al euskera. MONDRAGON y sus cooperativas son referentes en la normalización del euskera en el ámbito socioeconómico; son parte activa de ese ecosistema. Ejemplo de ello son la dinámica de sus órganos y los certificados de calidad obtenidos. A través de MONDRAGON, la próxima generación desarrollará sus competencias profesionales en euskera. Y eso es una gran aportación para la sociedad vasca.

Y el euskera también ha aportado mucho a MONDRAGON. A pesar de operar en un mercado global, el euskera permite actuar con personalidad propia y diferenciada. Proporciona una forma propia de estar en el mundo. Pone de manifiesto una responsabilidad ética, un compromiso con lo local y una apuesta por la sostenibilidad. De cara al futuro, también permitirá ser más cohesionados y resilientes y los planes de euskera pueden ayudar a gestionar la diversidad y la inclusividad.

Hoy en día no se puede poner en duda el valor identitario y cultural del euskera, como elemento de cohesión y cooperación, y ya se está estudiando el valor que sostienen los planes de euskera como elemento de competitividad para las cooperativas. Todo tiene sentido en el modelo cooperativo MONDRAGON.

Euskara eta MONDRAGON: un elemento intangible con valor añadido. —

“A pesar de operar en un mercado global, el euskera permite actuar con personalidad propia y diferenciarnos. Proporciona una forma propia de estar en el mundo. Pone de manifiesto nuestra responsabilidad ética, nuestro compromiso con lo local y nuestra apuesta por la sostenibilidad”

MONDRAGON eta euskara, elkarrekin haziz



Urtean 2 milioi euroren inguruko **INBERTSIOA EUSKARA PLANETAN.**



500 langile baino gehiago aritu dira azken ikasturtean euskara hobetzen **MONDRAGONeko kooperatibetan.**



MONDRAGONeko organo gorenak euskaraz ari dira: Kongresua, Batzorde Iraunkorra



Nafarroako enpresa industrialen artean euskara planak dituztenak MONDRAGONekoak dira.



MONDRAGONeko 10 kooperatibatatik 6k euskara planak dituzte.

MONDRAGON	 GIZATASUNA LANEAN	Finantzak Industria Banaketa Ezagutza
------------------	---	--

MONDRAGONeko euskara planek 26.500 langile baino gehiagori eragiten diete, hau da, hemengo kooperatibetako langileen %80 baino gehiagori.



eta Zuzendaritza.

eraticiben herenak baino gehiagok Bikain ziurtagiria du.



Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren **LANHITZ** programako 4 enpresetatik 1 MONDRAGONekoak dira. **20 urte baino gehiagoko planak dituztenen erdiak MONDRAGONekoak dira.**



Gizarte ekimenetan aktibo:
Euskaraldian 1.000 arigune baino gehiago...

Lanean ere euskaraz!

“**G**izakiarentzako urrats txiki bat, gizateriarentzako jauzi handi bat”. Halaxe esan omen zuen Neil Armstrong astronauta estatubatuarrek 1969an Apollo 11 misioan ilargian lehen urratsa eman zuenean. Antzeko esamoldea osatu dezakegu talde kooperatiboak euskararen aldeko apustuan egindako abenturaren bueltan: “MONDRAGONentzat urrats txiki bat, lan arloko euskararen normalizaziorako jauzi handi bat”.

Izan ere, bada aipatzeko modukoa Batzorde Iraunkorrek euskarekiko egin duen ibilbidea, aspalditik ari baita euskaraz funtzionatzen. Talde kooperatiboaren gorengo organoa da, Kontseilu Orokorrarekin batera, kooperatiba guztiak ordezkatzen ditu, eta Kongresuen artean hileroko biltzen da. Eta horrela izanik, berebiziko garrantzia dauka lanerako hizkuntza euskara izateak bere hileroko dinamikan –deialdiak, bilerak, txostenak, aktak, interbentzioak eta abar–. Bai guretzat, MONDRAGON osatzen dugun guztiontzat, eta baita euskara sustatzen ari direnentzat ere, erreferente bilakatu garelako. —



Olandixoko baserrian hartutakoa da, pasaden azaroaren 11n, Batzordeak egin zuen hileroko bileran. Mariasun Sarrionandia eta Xaber Ozerinjauregi izan ezik (Ezagutza dibisioa, eta Tresneria eta Sistemaseko ordezkariek, hurrenez hurren) gainerako guztiak bertaratu ziren.



- 1 Amets Ugalde – Idazkaria.
- 2 Mikel Uribetxebarria – CHP Automozioa.
- 3 Oskar Arroyo – Osagaiak.
- 4 Ruben Gabilondo – Ekipamendua.
- 5 Andres Mazkianan – Makina Erreminta.
- 6 Mikel Larrea – Banaketa.
- 7 Patxi Azpiazu – Eraikuntza.
- 8 Andoni Larrañaga – Industriarako automatizazioa.
- 9 Joxean Alustiza – Finantzak.

- 10 Juan Jose Martínez – CHP Automozioa.
- 11 Xabier Egibar – Finantzak.
- 12 Klaudia Lukita – Ingeniaritza eta Zerbitzuak.
- 13 Iñigo Ucin – Kontseilu Orokorreko presidentea.
- 14 Leire Mugerza – Banaketa dibisioa eta lehendakaria.
- 15 Koldo Kortabitarte – CM Automozioa.
- 16 Iñigo Arrieta – Osagaiak.
- 17 Asun Bastida – Banaketa.
- 18 Javier Amezaga – Banaketa.

Competitividad y planes de euskera, ¿cómo se relacionan?

En los últimos 40 años ha cambiado mucho la forma de entender la competitividad en el seno del cooperativismo, y MONDRAGON no ha sido una excepción. Se ha constatado que cada vez son más los factores económicos, sociales y medioambientales que influyen directamente en la competitividad. Por ello, en Emun decidimos iniciar una línea de investigación que ha confluído en el estudio denominado Gehi, partiendo de una premisa: ¿Qué aportaciones realizan los planes de euskera en los factores que influyen en la competitividad?

OLATZ OLASO GARITANO ASESORA DE EMUN



Cuando hace 26 años creamos Emun con el fin de euskaldunizar el mundo laboral, algunos Consejos Rectores de las cooperativas que impulsaron la puesta en marcha de los planes de euskera albergaban una intuición: los planes de euskera, junto con fortalecer el euskera, contribuían en otros ámbitos como la cohesión, el nivel de satisfacción de la plantilla o la participación.

En Emun hemos considerado que ha llegado el momento de investigar esa intuición. Onintza Legorburu Larrea, compañera en Emun, y yo, emprendimos el año pasado un camino para responder a dos preguntas: por un lado, queríamos saber, qué aportaciones han hecho en estos últimos años los planes de euskera, más allá de la revitalización del euskera. Por otro lado, quisimos conocer qué y cómo debemos de cambiar para poder realizar una mayor aportación a las empresas. Este proyecto se ha desarrollado gracias a la ayuda del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Gipuzkoa

La investigación se ha basado en el estudio pormenorizado de cuatro casos, todas cooperativas de MONDRAGON: Danobat, Ikerlan, Fagor Electrónica y Eika. De éstas hemos concluido que los planes de euskera han realizado aportaciones en 14 diferentes ámbitos relacionados con la competitividad: 7 relacionadas con la gobernanza y la gestión, 4 relativas a las personas y 3 del ámbito social. No podemos desgranar aquí todos los detalles de dichas aportaciones, pero a modo de ejemplo subrayaremos dos: 1) Trabajar en la lengua de uno mismo incrementa el nivel de satisfacción de la persona y de igual forma se favorecen su aportación al trabajo y la competitividad de la empresa. 2) Que la trabajadora o el trabajador forme parte de un proyecto de la empresa aumenta la cohesión, y por ende, su implicación en ella.

La investigación sigue su curso en la fase de experimentación e iremos informando de nuevos avances, pero no quisiera terminar este artículo, sin agradecer a las cuatro cooperativas la disposición que han mostrado para participar en la misma.

Todo lo realizado ha supuesto un aprendizaje, pero nos queda mucho camino por recorrer. Tenemos por delante el reto de seguir fortaleciendo el euskera en las cooperativas y en el mundo laboral, así como seguir tendiendo puentes que aporten de forma transversal a los retos futuros de las cooperativas. —

“Los Consejos Rectores de las cooperativas hace 25 años sabían que los planes de euskera, más allá de fortalecer el euskera, realizarían otras aportaciones a las empresas”



Euskara sustatzeko, erakundeek abiarazitako herri politiketan, Laboral Kutxa, Fagor eta Mondragon Unibertsitatea izan ditugu bidelagun, besteak beste.

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUA
EUSKO JAURLARITZA

“Lankide nahi zaituztegu”

Beste adibide asko ere aipatu daitezke. Laboral Kutxak diruaren bidez laguntzen du Etxepare itzulpen sarietan. MONDRAGON taldeko hainbat enpresa, herri-erakundeen konplize dira euskara lan-munduan sustatzeko proiektutan, bai industrian zein zerbitzuetan edo finantzetan. Irakasle eta profesional euskaldunak trebatzeko lanbide-hezkuntzan edo unibertsitate-ikasketetan MONDRAGONek konpromezu sendoa erakutsi du. Adibide batzuk baino ez dira MONDRAGON taldeak euskararen normalizazioan eta euskararen erabileran hartutako konpromezuen erakusgarriak. Ez hori bakarrik, proiektu eta eginkizun horietako askotan zu zaude, TU Lankide aldizkari honen irakurlea; zure mailan, pertsona eta profesional modura dituzun konpromezuen bitartez.

Euskara lan esparruan

Euskara lan munduan integratzeko ahalegina berria da. Berrogeita hamar urte izango dira lehen ahaleginak hasi zirenetik; kooperatiba, enpresa, langile eta enpresari gutxi batzuen ekimenez. Atzera begiratuz, ikusi dezakegu asko dela egindakoa, baina baita egiteko dagoena ere.

MONDRAGON bezalako korporazio batek euskararen normalizazio bidean egin dezakeena asko da. Batetik, Euskadin dituen lantoki, lantegi eta lan-prozesuetan euskara erabiltzeko gune eta taldeak identifikatuz, edo hizkuntza-planak eginez, edo euskararen erabilerarako planak sustatuz. Askok egin daiteke inguruan bizi diren euskararen aldeko mugimendu, ekimen eta jarduerekin bat

egiteko. Eta asko dira MONDRAGON osatzen duten pertsonen konpromezua.

Bestetik, MONDRAGON taldeak munduan barreiatuta dauden enpresak ditu. Herrialde horietan euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuk hitz egiten dira, eta beste hizkuntza horiek enpresen funtzionamenduan integratzea, eta komunikaziorako bide berriak sortzea eredu on bat izan daiteke bertako eta hemengo jendearentzat.

Lan munduan euskararen erabilera normalizatzea da gure erronketako bat, horretarako lankidetzaren beharrezkoa da: erakunde publikoak, beraien programa eta laguntzak; enpresak, beraien plangintza eta konpromezua; eta nola ez, lankideen eta hauen prestutasuna lanean euskara erabiltzeko.

MONDRAGON, duen tamainagatik, presentzia eta enpresa-izaera bereziagatik, parte-hartzearekin eta ingurunearekiko duen konpromezuagatik bidelagun ezin hobea izan daiteke euskara normalizatzeko dugun erronkan. Eskerrik asko egindakoagatik. Lankide nahi zaituztegu. —

“MONDRAGON, duen tamainagatik, presentzia eta enpresa-izaera bereziagatik, parte-hartzearekin eta ingurunearekiko duen konpromezuagatik bidelagun ezin hobea izan daiteke euskara normalizatzeko erronkan”

“Konpromisoa hartu dugu euskaraz egiteko”

2022ko uztailaz geroztik Osagaien Dibisioko Kontseilu Errektoreko lehendakaria da Arrieta. Euskaraz jakin gabe hasi zen Eika kooperatiban lanean, euskaradun egin zen bertan eta gaur egun lan munduan euskara bultzatzeko lan handia egiten dihardu.

IÑIGO ARRIETA OSAGAIEN DIBISIOKO KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA

Osagaien Dibisioko Kontseilu Errektorearen bilerak gaztelaniaz egiten ziren lehen askotan, orain euskaraz egitea lortu duzue. Nola izan da bilakaera? Lehen ere egiten zerbait euskaraz, baina ez gaur egun moduan estruktura-tuta. Esango nuke jauzi bat egin dugula. MONDRAGONeko Plan Estrategi-koa martxan jarri genuenean erabaki genuen dibisioak euskara barnean txertatzeko trakzio-lana egin behar zuela. Euskararen inguruan hausnarketa egin dugu eta konpromisoa hartu dugu euskaraz egiteko. Horretarako, jakina, ulermen maila bermatuta egotea garrantzitsua da eta gure kasuan hala denez, nahiko erraza izan da. Gure artean zenbait erabilera adostu ditugu, ez badugu ulertzen galdetzeko, adibidez. Orokorrean ikusi dugu partaideak gustura daudela eta bide polita egin dugula. Hurrengo pausoa izango da zuzendaritza mailan ere lantzea.

Zein izan da zuk egindako bidea euskararen murgildu arte?

Gasteizen jaio nintzen eta nire ama-hizkuntza gaztelania zen; euskara ikasgai bat zen niretzat. Ez nuen euskara baloratzen balio erantsi moduan. 2007an Eikara sartu nintzen euskara jakin barik. Elkarrizketan esan zidaten euskara beharrezkoa zela eta hartu nuen euskara ikasteko konpromisoa. Eikako lankideekin asko ikasi dut, batez ere tailerrekoekin; nire barne-
tegia izan da. Oso harro nago egindako ibilbidearekin eta oso eskertuta Eikari erraztasun guztiak jartzeagatik.

Zein izan da motibazio nagusia?

Ikasi dut Eika euskara barik ez litzatekeela berdina izango, legatu kontua da. Kultura bat dago eta maitatzen ikasi dut, eta euskaraz bizi nahi dutela transmititu didate eta oso positibo baloratzen dutela euskara ikasteko esfortzua egitea. Jaso dudan legatu hori hobe-
bea uztea gustatuko litzaidake etorkizunean. —

“Ikasi dut Eika euskara barik ez litzatekeela berdina izango, legatu kontua da. Kultura bat dago eta maitatzen ikasi dut, eta euskaraz bizi nahi dutela transmititu didate eta oso positibo baloratzen dutela euskara ikasteko esfortzua egitea”

Compromiso sostenido con el euskera en el servicio y el trabajo



LABORAL Kutxa ha consolidado un compromiso ejemplar con el euskera como lengua de servicio y trabajo. Desde su fundación, ha ido marcando una serie de hitos como la introducción de carteles bilingües en 1964, la incorporación del euskera en la Asamblea General de 1974, ofrecer oportunidades para aprender euskera a los trabajadores y trabajadoras, la creación de ejemplos de buenas prácticas para oficinas en 2000 y la obtención del certificado Bikain en 2016, entre otros. Prueba de ello es, asimismo, la consolidación del Servicio de Euskara dentro de la Entidad.

La relevancia otorgada al servicio en euskera se refleja en el esfuerzo continuo de la entidad por garantizar esta posibilidad en la mayoría de los casos, con el 93% de sus oficinas de la red tradicional ofreciendo atención en euskera. Esta iniciativa se traduce en una conexión más profunda con la comuni-

dad, siendo percibida positivamente por la clientela que valora la disponibilidad del euskera en todas las interacciones. En cuanto a la situación actual en Euskal Herria, el 64% de las personas trabajadoras tiene un nivel B2 o superior. La entidad se esfuerza por hacer nuevas incorporaciones con conocimientos de euskera, contribuyendo así a mantener altos estándares lingüísticos.

Mirando hacia el futuro, LABORAL Kutxa reconoce los desafíos a los que se enfrentará la sociedad en términos de euskera. Colaborando con organismos e instituciones públicas, la entidad busca abordar estos retos y mantener su compromiso sostenido con la lengua. Internamente, se plantean metas ambiciosas, como garantizar que las herramientas y recursos de trabajo estén en euskera y aumentar el uso interno de la lengua. —

“Euskaraz izango gara”

La implicación con el euskera ha sido históricamente muy alta en Danobatgroup. El objetivo principal es que sus personas trabajen en euskera en la medida que lo deseen y las cooperativas ofrezcan oportunidades para ello. En ese sentido, *Euskaraz izango gara* (Seremos en euskera) es el lema del último Plan Estratégico del Euskera del grupo.

Aunque el 90% de la fabricación de Danobatgroup se exporte fuera de Euskal Herria, el conocimiento, la fabricación y la mayoría de las personas (1.000 del total de 1.400) se sitúan en la comarca del Deba, entre Elgoibar, Itziar y Bergara.

En el grupo, formado por las cooperativas Danobatgroup, Danobat, Soraluze, Goimek, Latz e Ideko, llevan 23 años impulsando dinámicas para promover el euskera en el ámbito laboral. En el año 2020, en un momento de inflexión, pusieron en marcha un proceso de escucha entre el colectivo de las distintas cooperativas para saber de primera mano la valoración que hacían sobre la gestión del euskera en el grupo. El resultado de la escucha fue clarificador: veían necesarios los planes de euskera por ser eficaces para poder llegar a integrar el euskera en el ámbito laboral de un modo natural. Además, muchas personas sentían orgullo por lo conseguido y por ser referentes en este ámbito para otras empresas.

Comité de euskera del grupo

A nivel de la división Danobatgroup, cada cooperativa cuenta con un plan de euskera propio y adaptado a su ritmo y realidad, todo ello bajo un mismo plan estratégico. Para ello, cada cooperativa coordina su propio plan y comité de Euskera, y a través de un comité conjunto a nivel de la división Danobatgroup, donde participan representantes de cada una de las empresas, se comparten experiencias y se marcan acciones y líneas estratégicas conjuntas a trabajar.

Entre las acciones que se han realizado están, por ejemplo, la creación de diferentes canales para la comunicación interna, promoviendo un canal íntegramente en euskera (un 80% de las personas del grupo reciben las comunicaciones a través de este canal) y otro canal en bilingüe. Por otro lado, han conseguido que el euskera se utilice en un 80% en las asambleas generales de las cooperativas. Realizan cada vez más reuniones internas en euskera y han creado espacios llamados *Arnasgune* donde todo el equipo puede trabajar en euskera. También han realizado distintas acciones para que las relaciones con proveedores sean en euskera.

En Danobatgroup tienen claro que trabajar para facilitar que las personas que quieran puedan trabajar en su propio idioma influye en la motivación y en el ambiente de trabajo. El euskera es estratégico para el futuro de sus cooperativas y sus personas. —



El colectivo veía necesarios los planes de euskera por ser eficaces para poder llegar a integrar el euskera en el ámbito laboral de un modo natural

Arnasguneak identifikatu, sustatu eta babesteko praktikak

Lan munduan euskararen sustapenean egin izan duen lanagatik Antton Abadia saria jaso zuen 2021ean Fagor Taldeak. Beste enpresentzat erreferente dira, baina badira oraindik ere euskararen normalizazioari begira gauzak egiteko.

Taldeko kooperatibetan euskararen ezagutza handia bada ere, erabilera ez da ezagutzaren mailara iristen. Euskararen erabileran pauso bat harago emateko Arnasguneei lotutako praktika ezberdinak jarri dituzte martxan hainbat kooperatibatan.

Euskararen normalizaziorako Fagor Taldearen misioa honakoa da: *Fagor taldeak euskaraz lan egitera bidean, hizkuntzak kudeatuta, euskarari espazio propioak bermatuko dizkio*. Eta, horren barruan, bost lan ildo nagusietako bat da euskarari funtzio propioak ematea. Horren baitan, jorratu beharrekoen artean dute "arnasguneak identifikatu, sustatu eta babesteko neurriak hartzea".

Fagor Arrasate, Fagor Ederlan, Copreci, eta Fagor Taldeko gune ezberdinetan, besteak beste, arnasguneetan oinarritutako praktikak jarri dituzte martxan. Asko dira aipatzeko modukoak, baina adibide bat ekarriko dugu lerrootara: Lehendakarien Batzordea Arnasgune.







Batzorde horretan baliabideak jarri dituzte guneak euskaraz funtzionatzen jarraitu dezan eta euskaraz ez dakienak ulermen gaitasuna landu dezan. Ulermen gaitasuna garatzen joa-

teko hartutako neurriekin batera, batzordeko gainerako kideek ere beraien hitz egiteko modua modulatzeko ikasten ari dira, euskaraz ez dakienari ulermenerako bidea errazteko. Hala azaldu digu praktika Leire Okarantza Ibabek, Fagor Taldeko Gestio Sozialeko arduradunak: "Batzordeko pertsona batek aldibereko itzulpena erabiltzen du eta honek bileran euskaraz egiteko aukera ematen digu. Pertsona honek gaztelaniaz egiten ditu bere parte-hartzeak. Horrez gain, ulersaioetan parte hartzen ari da, bere ulermen gaitasuna hobetzeko. Prozesu horren ondorioz, bizpahiru urte igarota, batzordean puntu baten deskargua aldi bereko itzulpenik gabe egiteko urratsa eman du batzordeak. Ariketa honek, ulermen maila garatzen diharduen pertsonari ez ezik, gainerako batzorde kideei eskatzen dien ariketa balioan jarritz". —

Fagor taldeak euskaraz lan egitera bidean, hizkuntzak kudeatuta, euskarari espazio propioak bermatuko dizkio



KOOPERATIBETAN EUSKALDUNTZEN



Atzerian jaio eta hazi dira, eta, ondoren, Euskal Herrira etorri dira, Mexiko, Ukraina, Erresuma Batua, Maroko eta Kolonbiatik. Gaur egun, MONDRAGON taldeko kooperatibetan lan egiten dute. Euskarara ikasteko prozesuan murgilduta daude batzuk eta euskararen unibertsoan murgiltzeko zorian beste batzuk. Haien bizipenak eta esperientziak ezagutu nahi izan ditugu, beraien ahotik zuzenean bildutako testigantzen bidez.

1 Amy Sheen [Erresuma Batua] _____
FAGOR ARRASATE

Euskara erronka polit bat da niretzat. Bertako hizkuntza da, nire lan inguruan eskatzen dute eta familian inguru euskalduna dugu. Semeen kultura ulertu nahi dut, ikastolako hizkuntza... Ez dut nahi baztertuta sentitu hizkuntzagatik. Lanean izandako laguntza eta babesa eskertzen dut. Euskara eskoletan eta Mintza-saioetan nabil. Euskaldunen jarrerak asko lagundu dit, poza sentitzen dute ni euskaraz aritzen ikustean eta horrek animatu egiten nau. Nire helburua da euskaraz komunikatzea ahalik eta normaltasun handienarekin.

2 Mahjoub Akaraouch [Marruecos] _____
EDERFIL-BECKER

Estoy motivado para empezar a aprender euskera en enero en Ederfil-Becker. Estoy viviendo aquí ahora y cuanto más aprenda, mejor para mí y para mi familia. Quiero comprender el euskera cuando hablan mis hijos y ayudarles con los estudios, en la calle, cuando voy de compras, y también con los compañeros de trabajo.

3 Juan Torres [Kolonia] _____
FAGOR EDERLAN

Kolonbiatik etorri nintzenean hasi nintzen euskara lantzen, integratzeko. Eta orain lana euskaraz egin ahal izateko hobetu nahi dut. Motibazio handiena nire familia da eta, azken urteetan, nire alaba. Lanean nire saileko bilerak euskaraz izaten dira eta horrek ere laguntzen dit. Momentu honetan Mintza-praktikarekin ari naiz eta helburua da testuinguru ezberdinetan euskaraz hitz egitea; erronka pertsonala da aurkezpen bat osorik euskaraz egitea. Niretzako euskara “alaba-hizkuntza” da.

4 Carolina Mejía [Colombia] _____
CENTRO CORPORATIVO MONDRAGON

Trabajo con proyectos europeos de innovación. Quiero llegar a un nivel de comprensión suficiente para que la gente no cambie de idioma por mí. Recibo sesiones de comprensión Uler-saioak, y una compañera de trabajo me va enseñando palabras y expresiones. El euskera es una herramienta de integración, y a nivel laboral y cultural puede ofrecerme oportunidades.

5 Juan Carlos García [México] _____
MONDRAGON ASSEMBLY

Estoy estudiando en el euskaltegi de Aretxabaleta, dos horas de clase cuatro días a la semana, en el nivel A2. Me interesa ser capaz de entender cuando me hablan en euskera, y que la gente de mi entorno no tenga que pasarse al castellano. El euskera es una herramienta tanto como para comunicarme como para integrarme.

6 Olena Shemet [Ukraina] _____
FAGOR ARRASATE

Nire lanpostuak hala eskatzen duelako (B2 maila) hasi nintzen euskara ikasten. Nire lankideekin euskaraz egin nahi nuke, horrela beraiek ez luketelako hizkuntza aldatu behar. Ulertu eta beraiekin euskaraz hitz egitera iritsi nahiko nuke, B2 lortuz. Euskara eskoletan nabil, alabekin euskaraz egiten dut, irratia entzun, abestu... Belarriprest izan nintzen Euskaraldian. Euskara hizkuntza zaila da niretzat eta erronka bat da. —

MONDRAGON

Languages Lanean

nazioarteko kongresuan

Eusko Jaurlaritzak *Languages Lanean* nazioarteko kongresua antolatu du urtarrilaren 18 eta 19rako. Bilbon egingo da, Euskalduna Jauregian eta Guggenheim museoan, eta nazioarteko hainbat hizlarik parte hartuko dute ponentzietan eta mahai-inguruetan.

Kongresuaren helburua da hizkuntza kudeaketaren erronken inguruan esperientziak eta ezagutzak partekatzea eta eztabaidatzea. Izan ere, lan eremuak eta jarduera ekonomikoak gero eta anitzagoak dira eskaintzari eta eskariari dagokienez, eta baita hizkuntzei dagokienez ere. Horri erantzun nahian antolatu da kongresu hau.

MONDRAGONek ere aktiboki parte hartuko du kongresuan. Urtarrilaren 18an, sarrerako hitzaldi nagusien artean, Leire Mugerza Batzorde Iraunkorreko lehendakariak ponentzia bat aurkeztuko du, eta MONDRAGONek tokiko hizkuntzaren kudeaketan izan duen esperientzia azalduko du. Bestalde, MONDRAGONeko kooperatibek ere parte hartuko dute bertan. Besteak beste, Laboral Kutxa-

ko Nuria Agirrek zerbitzuaren kalitatearen inguruko mahai-inguruan parte hartuko du. Izango dira beste mahai-inguru tematiko batzuk eta bertan parte hartuko dute, besteak beste, Cikautxo eta Mondragon Unibertsitateko ordezkariak ere. —



**Languages
Lanean**
Kongresua

Egitaraua
ikusteko
eskaneatu
QRa



Aramaion,
2023ko azaroaren 22an

Gaia: MONDRAGONek bere bidea egin du euskararen normalizazioan. Nola irudikatzen duzu euskara eta MONDRAGONen arteko harreman hori 2050 urtean?

*Aurrez eginak, logikak diozt,
aztarna uzten duela
eta aurrera bidea hobe
egingo dela horrela.
Hala ere zein zaila ebazten,
datorrena datorrela,
zer izango den etorkizuna,
esango nuke bestela...
Lege eta erregela,
zein ohitura dena dela,
bi aldetako harreman baten
oreka funts den bezela,
pentsatu nahi dut oraindik elkar
behar izango dutela.*

*Nola kalean, hala eskolan,
tabernan edo enpresan
gure etxeko sukaldeetan,
ohean, sarean, prentsan...
arreta dena jarri aurretik
etorkizuneko fetxan
bideko pausu bakoitza dago
gure arduren jabetzan.
Eskubideen defentsan,
esan egin, egin esan,
gure esentzia zein egiteko
moduaren oinordetzan,
euskarak ere balio erantsi
izaten jarraitu dezan.*

Xabi Igoa Eriz